

**BIDEZIDOR KIROLEKO
ARGAZKIAK ETA
KRONIKATXOAK 5**

Anoeta-Galarreta-Santa Barbara-Lasarte (2018-04-20)

<p>Ibili gabe flakiak jota bilakatzen da umila, hilabetean seguru asko ez zuen hartu makila. Egun hauetan jango zituen hainbat errege opila, orain, ordea, tortilla puska eta sagardo botila.</p>	<p>Beltz batek eta mairu zoroak sortu zuten iskanbila, beltza trebea eta sendoa erabiltzen ukabila. Baina mairua beltzaren aurka zebilen mendeku bila, ero gisara lapurto nahian puskatu zidan makila.</p>	<p>Taldean inork aipatu omen ezkien usain goxoa, bide osoan dotore zeuden belardi eta basoa. Batek esan dit izan dugula ibilaldi eroso, hori lortzeko egin behar da ongi neurtu pausoa.</p>
--	---	--

(2016-01-08)

(2017-06-16)


(2017-06-16)

<p>Leku izenak, aztertuz goaz lats arte edo Lasarte, basoz josirik diren guneei deitzen diegu basarte. Eta gizakiz beterik dena izendatzen da gizarte, hemen gabiltza jakin-minez gaur gehienak ikasi arte.</p>	<p>Eguzkiaren azalpenak du guztiongan eragina, ibilaldian azaldu gara perretxikoak bagina. Orain artean hemen zenbaitek ikasi ote latina? ostiralero etorri denak ibilera bai arina!</p>	<p>Gutako askok bilatzen dugu mendian isiltasuna, giro lasaia bakea eta, jakina, edertasuna. Baina zenbaitek etengabe du mihian eginkizuna, gaurkoan ere gure Erramun “rolloa” sartu duzuna!</p>
--	---	---

(2018-04-20)

(2018-04-20)

(2018-04-20)



Hernaniko Santa Barbara basiliza

Arantzazu-Urbi-Arantzazu (2018-04-27)

**Bat edo batek nabaritzen du
igotzen arnasestura,
jardun denari sumatzen zaio
aurpegiaren freskura.
Pista ederra iritsi zaigu
bidezidorren lekura,
ibiltariok oraintxe goaz
paradisutik zerura.**

**Kolore berde-berde biziak
urbiako zelaietan,
harantz begira gosaldu dugu
goizaldiko hamaiketan.
Inguru honek sortzen duena
lasaitasuna benetan,
esan daiteke gehien-gehienek
jaitsi direla penetan.**

**Pertsona berez eskuzabala
ote da leku orotan?
Kalean ez da hori sumatzen
mendian, aldiz, askotan.
Gaurko honetan jende gazteak
bazeukan bere asmotan,
andrea altxa goxo-goxorik
eramateko besotan.**



Urbiako baseliza eta zuhaitz kimatuak



Urbiako landetako eserleku dotoretan hamaiketako dastatzen





Talde osoa Urbiako ostatuaren ondoan



Urbiatik Arantzazuko bidean



Atsedean laburrean jantziak eransten eta jan-edaten



Mutriku-Galdonamendi-Ondarroa-Mutriku (2018-05-11)

<p>Ondarroatik Saturranera pasealeku polita, olatu handi arriskutsuak etengabe errepika. Zipriztindurik azaldu dira Maribel eta Pakita, ez litzailete hau gertatuko mendi aldean jarrita.</p>	<p>Hasierako bainutegia gero mintegi epela, gerra garaian bihurtuko zen emakumeen kartzela. Eta berriro apaiz mintegi han ez zen inor ergela, gazte guztia atera baitzen dotrina bazekiela.</p>	<p>Itsasoaren zitalkeriak sortzen baitu nahigabea, horrelakoak bultzatu gaitu kondaira hau sinestea. Ekaitz zitalak lortuko zuen maitaleak banantzea, eta hor diren harkaitz bikiak Satur-Arán bihurtzea.</p>
--	--	--

Ez dirudi, baina itsasoa nahiko haserre zegoen...



Saturranetik Ondarroara dagoen pasealekutik barrena

Baina eguraldi aparta egin zuen...



Taldea Galdonamendin, hamaiketakoa hartu ondoren eta hau dastatzen





Begira zein ondo zatitzen duen nafarrak patata tortilla!



Eta zein gustura dagoen tipo hau emkumez inguratirik

Iraeta-Lasao-Azpeitia-Loiola-Azkoitia (2018-05-18)

**Autobusak ez zuen jasotzen
talde erdia besterik,
gorri-urdinak alde batetik
zuri-berdeak bestetik.
Iraetatik Loiolaraino,
egin genuen lehenik,
elkartu eta irtengo ginen
denok batera hemendik.**

**Zer aurkitzen du gure jendeak
honelako ekintzetan?
aurpegi alai, irribarretsu,
ikusten ditut hizketan.
Zorionaren helmuga hori
ez da lortzen gehienetan,
ameslariok bila dezagun
utopia ametsetan.**



Iraeta Zestoa bidegorrian zehar

Zenbat gizonezko ikusten dira bi hauen atzean?

Ziur asko, tabernetan edo kirol emanaldi batean izango dira!



Paisaia berde eta polit askoa Iraetatik Zestoara doana



Zestoako garbitegi edo ikuztegia, zubia pasa ondoren dagoena



Zestoako zubian, Ekain Berri edo Lasao bidean



Erreka ondo garbia ikusten da hemen, Lasarantz goazela



Azkorte inguruko paisaia eta basiliza

**Hernani eta Azkorte arte
goiza genuen sargori,
izerdi tantaz jantzi bustia
sumatzen zaio askori.
Gero bidean lokatz ugari
Mertxe han zaigu erori,
beldurgarria azken orduko
ostotsen burrunba hori.**

**Senderismoan gauza berriak
ikasi nahian gabiltza,
gaurko honetan Azkorten bertan
mintzagai dena *Buruntza*.
Jakin ezean beharko dugu
filologoen laguntza,
ausardi handiz jokatu eta
Jonek egin baitu hutsa.**

Irun (Lapitze)-Gurutze-Oiartzun (2018-06-01)

<p>Irun-Lapitze abiapuntu Done Jakue bidetik, Oiartzunera iritsi ginen ibilbide ederretik. Mizpira ugari begi aurrean arbolak bete-beterik, probatu gabe ez ginen pasa nekea ez zen alferrik.</p>	<p>Ibilbidea oztopaturik hor genuen garabia, tramankulua erdi-erdian tamainoz izugarria. Baina hala ere ez ginen galdu erabiliz pikardia, artzainak badu iparrorratza jarraituz gezi horia.</p>	<p>Bidezidorra gaur egitea ez zen inolaz jolasa, zeru bortitzak bota baitigu sekulako euri-jasa. Mizpirondoak bete-beteak probatzeke ezin pasa!, dastatzen hasi gutako zenbait baina oraindik mikatza!</p>
--	--	---

(2014-10-10)

(2015-10-23)

(2016-10-14)

<p>Irun hiritik Gurutzeraino paisaia paregabea, zuhaitz artean errekatxoak beste guztia berdea. Mizpira asko mizpirondoan baina umotu gabea, Antton Arrutik denoi diguna “hauek badute jabea”.</p>	<p>Gurutzeraino heldutakoan eta izerdi patsetan, gerritik gora aldatu gara geratu gabe lotsetan. Gero norbaitek banatu digu sagardoa basoetan, era berean ahoratzeko jarritakoa poltsetan.</p>
---	---

(2018-06-01)

(2018-06-01)



Oiartzun inguruko paisaia, hondo-hondoan, Aiako Harria

Tolosa-Izaskun-ibarra-Belauntza-Leaburu-Tolosa (2018-06-08)

Elizak zuen helburu gisa
irakastea dotrina,
eta guregan gazte ginela
izatea eragina.
“San Luisen Seme, Maria Alabak”
berarentzat jende fina,
baina geroztik gazteria du
asperturik alde egina.

Ibilbidean baziren zortzi
baseliza edo ermita,
otoitz eginez izango dugu
Zerua irabazita.
Munilla jaunak ez ote ditu
ate guztiak itxita?
Joan gaitezen Josafatera
hortxe baitugu Txirrita.

Zenbat kilometro ote diren
gutxi gorabehera bota,
hemen ez da inor ikusten
korrika edo saltoka.
Atzeko hauek sufritu dute
Belantzuraino igota,
esango nuke izango zela
baten batentzat Gólgota.

Leaburutik urrutiraino
zer paisaia den begira!
Eurite honek ekarri digu
edertasuna mendira.
Bat edo batek “kilometroak
hamasei izango dira”,
aitzindariak eraman gaitu
presaka tren geltokira.



Izaskun auzoko baselizan, taldea Ramonen azalpenak entzuten



Belauntzako udala, aldapa ederra igo ondoren



Izaskun auzoko basiliza

Urkullu urtegiari itzulia (Ibilbide berria) (2018-06-12)

**Arizmendarrietarena
jakin behar du munduak,
gizon xeble aurrerakoia
zela dio Aizpuruak.
Oso egokiak ziren bost gizon
bazeuzkan aukeratuak,
kooperatiben sortzaile honek
garbi zituen kontuak.**

**Motozikletaz joaten omen
elizatik lantokira,
azken honetan amaitu eta
abiatu zen tokira.
Aberastasun izugarria
ekarri zuen herrira,
hau bezalako gizon handiak
askoz gehiago balira!**

**Donostiatik atera eta
goazen leku berora,
haize-urite nekagarria
bota dezagun kanpora.
Ustekabea hara heltzean
eguzkiaren ondora,
argazkietan hurbil zaitzke
guk nahi genuen girora,
plazer handia izango dugu
ezagutzen Otalora.**

**Lankide-Kutxaren jauregia
gaur bera baita jabea,
aberats batek eros dezake
pobre batek ez, ordea.
Otalorako behatokitik
paisaia berde-berdea,
hau ikusita nori ez zaio
bertan isuri lerdea?**



San Anton urtegia-Irun (2018-06-15)

**San Antonetik abiatu-rik
berrogei adiskideak,
jasan ditugu bizkar gainean
zaparrada etengabeak.
Zoroak daude, burutik jota!
esango luke jendeak
baina koldarrak ohean dira
mendian balienteak.**

(2015-06-19)

**Alde batean eta bestean
erreka eta haritza,
gaurko honetan natura ezin
daiteke hobeki mintza.
Ondo izateko lagun maiteok
zertara joan Parisa?
adin honekin, dudarik gabe,
zein ederra den bizitza!**

(2016-04-29)

**Zenbaitek deitzen dio San Anton
beste hanbaitek Endara,
uraren hotsa entzungo duzu
hona etortzen bazara.
Toki honetan aritzak nonahi
Aralarren pagoaga,
ibilaldira etor zaitezke
udaberrian ahal bada.**

(2018-06-15)

**Ibiltariak aproposa du
ez hotza eta ez bero,
ostiraletan eguraldia
ez da jartzen inoiz ero.
Etorri gabe geratzen denak
ez du hau, aldiz, espero,
une ederraz goza lezake
hona etorritz gero.**


(2018-06-15)



Endara (San Anton) urtegia



Taldea San Martzial basilizaren ondoan



Iorategi ederra duen baserria, Olentzero eta guzti

Urkulu urtegiari itzulia (Jarraipena) (2018-06-12)



Juan Ignazioaren azalpenak entzuten, urkulu urtegiaren inguruan



Otalora jauregia, Urkulu urtegiaren ondoan



Urkulu urtegiaren inguruan dagoen begiratoki batean



Otalora jauregiko balkoi honetatik, paisaia zoragarria da



Otalora jauregiaren aurrean batzordekideok



Otalorako familiaren jantokian, hirukotea bazkaltzeko prest



Talde guztiak elkarrekin, lehenengo topaketan

**Aralarreko irtenaldia
elkartasunean datza,
ibilaldira ez joatea
niretzat da zigor latza.
Gazte garaiko oroimen ditut
Guardaetxe, Igaratza,
eta bertako pertsona haiek
Zubiaurre, Nikolasa.**

**Zoritxarrean murgildu gara
benetan ez da gezurra,
Carmenek hanka apurtu baitu
Juanok eskumuturra.
Osotasuna heltzeko ordua
izan dadila laburra,
udakoetan inork ez beza
txikitu bere sudurra.**



Igaratza inguruan, taldea aldapatxoa igotzen



Kareharriaren tartean, ibiltariok erne



Igaratzako betiko ikuspegia izugarri polita



Emakume andana gizon gutxi horiek babestera joan ziren



Aitzindaria kapitainaren lekutik paisaia behatzen

**Argazki hauek dakarkigute
irtenaldiaren berri,
izandakoek egingo dute
oroimen ona ekarri.
Aurpegi sano eta alaiak
baitzaizkizue igarri,
hemeretziko txanda horretan
guztion izenak jarri.**

**Eguraldiak lagundu eta
paisaia paregabea,
ibiltaria eskuan duzu
zorionaren habea!
Bukolikoa dugu lekua
non da beste bat hobea?
larre, pagoa eta artaldea
kutsadurarik gabea.**



Egoki prestaturik ikusten da jendea

**Helduen Hitza zorretan dago
gaurtik Goierrikoekin,
laguntzeko prest, abegikorrak
taldeko jendearekin.
Berdez jantzita aritu ziren
batekin eta bestekin,
hurrengorako jantziko gara
gure anagramarekin.**



Zein gustura hartzen den atsedenalditxo unea!



Garai bateko Guardiaetxea, 2009. urtean eraitsia